

**Josu Agirre maila
ona ematen ari da
profesionalerik**

Madrilgo Itzuliko lehen etapa
irabazi du, Orbea-rekin ▶ 3



Harpidedunei banatua ▶ Larunbata ▶ 2006-05-13 ▶ IV. urtea ▶ 884. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Bi urteko kartzela zigorra Atanes hil zuen ertzainari

ALEGIA ▶ «Zuhurtzigabekeria larriagatik egindako hilketa» leporatu dio
Gipuzkoako auzitegiak; lau urteko lan gaitasungabetzea ere ezarri dio ▶ 5

TOLOSALDEA ▶

**Baserritarren
zaindariaren
omenez**

San Isidro eguneko
ekitaldiak non-nahi ▶ 2



«Subjektu politikoa garela aitortu behar dute»

ALKIZA ▶ Joseba Egibar EAJko Gipuzku Buru Batzarreko
lehendakaria eta Rafa Diez LAB sindikatuko idazkari nagusia
mahai berean eseri ziren, atzo, Alkizako Kultur Astean, su-etenaz
aritzeko. Mahai-inguruaren aurretik egungo egoera politikoa
buruz biek dituzten iritziaz jasotzeko aukera izan zuen Hitzak.
Euskal Herria subjektu politiko bezala aitortzea «ezinbesteko-
ztat» jo zuten bi hizlariak. I. GARCIA ▶ 4

ARESO ▶

Gaur ekinen dio Aresok sokako lanari

Euskal Herriko Sokatira Txapelketako
lehenengo jardunaldian lehiatuko da ▶ 7

OSTATU JATETXEA ITZIAR ETA AMAIA

- Eguneko Menua
- Plater Konbinatuak
- Asteburuko menuak 21-28 €

Erreserba egiteko deitu 11:00etatik 16:00etara

Alkizako plaza • ALKIZA • Tel.: 943 69 18 36

Gure gomendioa



Hartz arria (Hornos)
Miguel Barja (Lizaso)



Hainko iburrua (Hornos)
Xabier Barja (Lizaso)



Autobiografia (Hornos)
Antonio Iturriz



El verano del hombre
Carlos Barja

BAIONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA • GASTEIZ • IRUN • IRUÑA • TOLOSA

www.ekar.com

ekar

ekar ezagutzen dugulako

SAN ISIDRO EGUNA ▶

Baserritarrak bat, San Isidro egunean

Ekitaldi ugari antolatu dituzte eskualdeko herrietan, baserritarren zaindari San Isidroren omenez

ERREDAKZIOA

Baserritarren eguna ekitaldi ugariarekin ospatuko dute eskualdeko herri ezberdinetan. Guztietan, mezak eta bazkari zein afariak izango dira nagusi, beti ere. Honakoa da, herriz herri, egitaraua:

GAUR

Aitzo. 21:00etan meza egingo dute eta, ondoren, afari legea Arandia jatetxean.

BIHAR

Orendain. 11:45ean Meza Nagusia izango dute eta 14:00etan bazkaria egingo dute herriko tabernan.

ETZI, SAN ISIDRO EGUNA

Abaltzisketa. Meza Nagusia izango da 12:30etik aurrera eta, ostean, Larraitzeko Ñaña-ri jatetxean egingo dute bazkaria, 14:30ak inguru.

Albiztur. 20:30ean meza izango da eta, ondoren, 21:00etan, afaria izango da Santa Mari-nan.

Alkiza. 19:00etan, San Isidro eguneko Meza Nagusia izango dute. 20:00etan, EHNEko kide Aitor Aranburuk hitzaldia eskainiko du baserriaren egoera gaitzat hartuta. 21:00etan, herri afaria izango dute. Udalak antolatuta, Ostatu jatetxean. Bertara etxe bakoitzetik bi pertsona joan daitezke. Beste norbaite joan nahi izanez gero, afari osoa ordaindu beharko luke.

Anoeta. 19:30etik aurrera, Juantxo Agirre Mauleonek zuzendutako ikerlan-taldeak *Anoetako baserriak* liburua- ren aurkepena egingo du, San Joan Parrokian.



Abaltzisketako prozesioa. o. e.

Asteasu. 11:30ean, meza; 13:00etan, erakustaldia probalekuan, 900 kiloko harriarekin; 14:00etan, herri bazkaria Sarasola sagardotegian.

Belauntza. Meza 13:00etan izan ostean, 14:00etan bazkal-tzera joango dira Bentan.

Berastegi. San Isidro irudia udaletxetik San Martin parrokiara eramango dute prozesioan, 11:45ean. 12:00etan, berriz, Meza Nagusia izango da; eta 14:00etan, bazkaria izango dute Gaztainondo jubilatuen elkarte- en.

Gaztelu. Hamaiketako Kontzeju tabernan, 11:00etan.

Ibarr. 10:30ean meza izango da, eta ondoren prozesioan aterako dira. Eliz atarian soroen, abereen, eta familia taldeen bedeinkapena egingo da. Amaiztean, hamaiketako izango eta, ondoren, bazkaria.

Irura. 19:30ean, Irurako dantzarien saioa izango da, plazan; 20:00etan Isidro Deuna baserritarren zaindariaren omenezko meza; 21:00etan herriko baserritarrentzat, afaria.

Tolosa. Izaskungo Andra Ma-

rik antolatuta, prozesioa egingo dute; 12:00etan Meza Nagusia izango da Santa Maria parroki- an; eta 14:00etan bazkaria egingo dute baserritarrek.

Zizurkil. 11:00etan Meza Nagusia izango da eta, ondoren prozesioa; 12:00etan, Juan Jose Ibarretxe lehendakariak Fraisorora egingo du bisita. Ondoren, Asteasura joango da eta herri bazkarian parte hartuko du. Lehendakariarekin batera izango dira Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Gipuzkoako Ahal- dun Nagusia; Gonzalo Saenz de Samaniego Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailbu- rua; Rafael Uribarren Landa In- gurunearen Garapenerako Di- putatua, eta Zizurkilgo, Villabo- nako eta Asteasuko alkateak. 12:30ean, Joseba Otaegi eta Arkaitz Iriarte aizkolariak Ola- sagastiren aurka ariko dira nor baino nor. Halaber, harri-jaso- tzaile gazte baten erakustaldia izango da, bertsolari eta trikiti- larien saioekin batera. 14:00etan, Plaza Etxeberri jate- xean bazkari legea egingo dute.

HILAREN 19AN, OSTIRALA

Baliarrain. San Isidroren omenez, afaria egingo dute base- rritarrentzat.

HILAREN 20AN ETA 21AN

Elduain. Hil honen 20an, larun- batorekin, *Aupa Etxebeste!* fil- ma eskainiko dute iluntzean. Kutxak babestuta. Arratsalde- an, berriz, haurrentzako filma aurkeztuko dute, oraindik ze- haztear dagoena. Eta, hilaren 21ean, igandearekin, San Isi- dro Eguneko hamaiketako es- kainiko dute Kontzeju taber- nan.

BIDEGOIAN ▶

Bidegoiangoak Azkoitiko Dantzari Txiki Egunean

Bihar, Bidegoiango dantzari txikiek Azkoitian egingo den 32. Dantzari Txiki Egunean hartuko dute parte. Horretarako, dantzariak Azkoitiko Musika Eskolan elkartuko dira, 09:45etik aurrera. Ez da honakoa Azkoitia bisitatzen duten lehendabiziko aldia; izan ere, aurreko beste behin ere aritu dira han dantzari Bidegoiangoak. Dantzari Txiki Egunak ehunka ume biltzen ditu urtero; iaz, hain zuzen ere, 360 haurtxok hartu zuen parte.

VILLABONA ▶

Erraustegiaren aurkako manifestazioa

Villabonako erraustegiaren aurkako plataformak gaur, 18:00etan, Donostiako Boulevard-ean *Erreferendumaren alde, errausketarik ez, alternatibak bai* lelopean izango den manifestazioa deitu du. Errausketaren Aurkako Herri Plataformen koordinakundeak deitu du manifestaziora. Haiekin batera, alde azaldu dira hainbat eta hainbat eragile sozial eta politiko; besteak beste, EHNE, ELA, LAB, UGT, STEE-ELAS sindikatuak, Eguzki, Ekologistak Martxan, Greenpeace, Haritzalde, EB, Aralar, Baga- Boga, Zutik eta San Markos Zabortegiko plataformak.

VILLABONA ▶

Behar-Zana-koak Tolosaldeko III. Pilota Topaketan

Villabonako Behar-Zana ki- roli elkarteko pilotari batzuk, eskualdeko beste batzuekin batera, Tolosaldeko III. Pilota Topaketak jokatu dituzte, gaurkoan, Zizurkilgo Intxaur pilotalekuan. 10:30ean izan- go dira neurketak, eskuz bana- kakoa. Hauek dira, hain zuzen, partidak: Aranburu I.a (Behar-Zana) Galarragaren aurka (Aurrera Saiatz); Aran- buru II.a (Behar-Zana) Belo- kiren aurka (Amezketak) eta Lizaso (Behar-Zana) Etxebe- rriaren aurka (Kuku, Anoeta).

TOLOSA ▶

Sendotzak, gaur, Andre Mari parrokian

Gaur, 19:00etatik aurrera, To- losako gazte talde batek sen- dotzako sakramentua hartu- ko du, Andre Mari parrokian. Hori dela eta, ohiko meza ospa- kizuna, 20:00etan gara- tzen dena, bertan behera ge- ratzen da. Hala ere, parroki- ko arduradunek jakitera eman dutenaren arabera, he- rritar guztiak, familiarteko eta senideekin batera, gonbi- datu nahi dituzte «gazte talde eder nonen sendotza ikuste- ra» bai eta meza entzuter- a ere.

VILLABONA ▶

EHNA tramitatu ahal izateko aukera, gaur

Gaur, 11:00etatik 13:00etara, eta 16:00etatik 18:00etara, EHNA tramitatu ahal izango dute Villabonako Kultur Etxe- an. Horretarako, hiru argazki, 15 euro eta errolda agiria aurkeztu beharko dute. Bes- talde, EHNA tramitatzeko au- kera dago Adunan, Alegian, Leaburun, Orendainen eta Orexan, egunero, udaletxe- an; Anoetan bi hilabetez behin; Asteasun, hilean behin, az- ken ostiralean; Ibarren, bi hi- labetez behin, hirugarren as- teko larunbatean; eta Villa- bonan, hileko 2. larunbatean.

iragarki laburrak ▶

LANPOSTUAK

Gidariak. Udaletan eta Eusko Jaurlaritzan laster lanpostuak B1, BTP eta C1. 943 31 37 82.

Garbitzaileak. Lanpostu libreak: Eusko Jaurlaritza, ikastebeak, ospitaleak. Informazioa 943 31 37 82.

Mantenimendu Ofiziala. Ospital, egoitza eta udaleberako. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Gipuzkoako Foru Aldundiak behar ditu: sukaldari laguntzaileak, obra

zaintzaileak, gidariak, zaintzaileak, basozainak, laborategi teknikariak, garbitzaileak. 943 31 37 82.

Osakidetzak. Lanpostu libreak. Teknikariak, alborategi laguntzaileak, erizain laguntzaileak, zeladoreak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Langileak. Igeltseroak, elektrizistak, iturginak, lorezainak, palistak, gidariak. Udaletxeetarako lanpostu libreak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Administrari laguntzaileak.

Beasain, Bergara, Soraluez, Mutriku, Zizurkil, Mendaro eta Anoetako udal- eko administrari laguntzaile lanpostuak bete behar dituzte. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Aireportuak. Lanpostuak betetzeko: bezeroari arreta, aireko kontrolatzaileak, suhiltzaileak, mantentze-lanak. Informazioa doan. 943 31 37 82 telefono zenbakira deituta.

SALGAI

Autoa. Renault Kangoo RXE DTI. 2000koa. 88.000 km. Estrak. 943 69 71 94.

Autoa. Kadett 1.8, 115 zaldikoa, salgai. Egoera onean eta merke. 675 70 53 58.

LANA

Etxeko lanak. Pertsona bat behar da etxeko lanak egiteko. Deitu 14:00etatik 21:00etara. 669 21 33 37.

Gidaria. Tolosaldeko Garraio enpresa

batek gidaria behar du C gidabaimenarekin. Eskarmentua estatuan eta nazioartean. 629 714 831.

ALOKERA

Karabana. Errioxako kanpin batean karabana alokatzen da. Guztiz eroso. Asteburuak... 669 706 870.

BESTERIK

Frantseseko klaseak. Frantseseko klaseak hartuko nituzke. Interesatuak deitu 620 529 498ra.

ARRAUNA ▶

Arraunlari txikiak Oria ibaian barna

E. Ezeiza ▶ Ikastoletako Federakuntzak antolatuta, 13-14 urte bitarteko 300 gaztetxo inguru ibili dira arraunean, Oria ibaian zehar. Hala, Tolosako ikastetxeetako ikasleek, uretan, arraun hastapen ikastaroak jaso dituzte. IKAS arrauna egitasmoarekin, Federakuntzak hurrengan arrauna bultzatu nahi du. Honela, aste gutxian zehar, barre eta algaren artean, arraunlari txikiek trebatzeko aukera izan dute Oria ibaian. Irakasle lanetan, besteak beste, arraunean eskarmentua duten lekeitiarrak aritu dira. **E. EZEIZA**

MENDIA ▶
Lendiz eta Pagoagara, mendi irteera
ERREDAKZIOA

Bost ordutako mendi irteera antolatu du Alpino Uzturre elkarteak. Animatzen direnek, Arabako Vitoria mendatea eta Saseta herria ezagutzeko aukera izango dute, hilaren 21ean, igandea.

Irteerara goizeko zazpitan, Pablo Gorosabeletik abiatuko dira. Joan nahi duenak elkartera jo behar du (Gudari, 5). Bazkideek 10 euro ordaindu behako dituzte, eta gainontzekoek 12 euro.

TXIRRINDULARITZA ▶
ESTI EZEIZA

Madrilgo Itzuliko lehen etapa ostegunean jokatu zen, eta Josu Agirre txirrindulari tolosarrak irabazi zuen. Denboraldiko lehen garaipena eman zion herenegun Agirrek Orbea taldeari. Honen ondoren, oso gustura dago tolosarra. Ibilbideari dagokionez, «uste baino malda eta aldapa gehiago» aurkitzen ari dira ziklistak. Atzo, berriz, erredakzio hau itxi ondoren amaitu zen bigarren etapa.

8,5 kilometroko bakarkako erlojupeko lasterketa irabazi zuen herenegun tolosarrak. Hau, Madrilgo Casa de Campion jokatu zen, eta Sergi Escobarri hiru segunduko abantailarekin gailendu zitzaion. Extremadurako (Espainia) Itzulian hartutako kolpearen ondoren, garaipen handia izan da hau Jon Odriozolaren taldearentzat. Izan ere, segundo batetako tarteagatik galdu zuen Xabat Otxotorenak lasterketa.

Orain, lan handia egin behako dute Josu Agirre eta bere taldekideek, lidergoan man-

Josu Agirre bikain Madrilgo Itzuliko lehen etapa irabazita

Sei urtetan afizionatu mailan aritu ondoren, tolosarrak iaz salto egin zuen profesioalera, Orbea txirrindularitza talde bizkaitarrarekin

tentzeko. Odriozolaren esanetan, «izandako denboraldiaren ondoren, taldeak merezi zuen horrelako garaipen bat».

Orain arteko ibilbidea

Josu Agirre 24 urteko txirrindulari tolosarra txiki-txikitatik dabil txirrindularitza munduan. Sei urtetan afizionatuen mailan ibili ondoren, iaz profesioalera salto egin zuen, Orbea talde bizkaitarrarekin, hain zuzen ere.

Afizionatu urte horietan, hainbat garaipen lortu zituen, besteak beste, Gipuzkoako Txapelketa eta Elgetako Mendiko Kriterium-ekoa. Zorteak

ez bazion gehiegi lagundu ere, lesio ugari izan baitzuten aurriko denboraldian, mailaz igotzea lortu zuen.

Orain, berriz, bere txikitako ametsa beteta, eta profesioalera, hilabete gutxi batzuk bakarrik behar izan ditu bere izena entzutera emateko. Honela, Orbea taldean sartuta, lehenengo garaipena eskuratu zuen ostegunean.



Josu Agirre, afizionatueta zebilela. IÑIGO ASENSIO

Komunikabide batek pertsona bat behar du

asteburuetan argazkiak ateratzeko.

Interesatuak deitu 661 678 817ra

astelehen, astearte edo asteazkenean, 12:00etik 14:00etara.

Abraham Olano martxa zikloturista

2006-05-21 8:00 (Usabal kiroldegia)

Informazioa: www.tolosa750.net

Tolosa 750 ibilbide bereziak: 66, 114 eta 168 km.

ALKIZA ▶ POLITIKA

«Subjektu politikoa garela aitortu behar dute»

Diezek eta Egibarrek egungo egoera politikoa izan dute hizpide, Kultur Astean

IMANOL GARCIA

Alkizako Kultur Astearen lehen eguna izan zen atzoko, eta eguneko ekitaldien artean mahai-inguru interesgarria burutu zuten, Kultur Etxean. Joseba Egibar (Andoain, 1959) EAJko Gipuzku Buru Batzarreko lehendakariak eta Rafa Diez (Lasarte, 1956) LAB sindikatuko idazkari nagusiak ETArene su-etena eta honek zabalduetako aro berria izan zuten hizpide. Lorea Agirre alkizar kazetariak egin zituen moderatzaile lanak. Solasaldia egin aurretik, Hitzak bi mahaikideen iritzirik jasotzeko aukera izan zuen.

SU-ETENAREN ONDORENGO PAUSOA

Joseba Egibar. «Su-etena irekitzen duen eszenategi berriak posibilitatu behar du benetan azpi-azpian jatorri historikoa eta eduki politikoa duen gatazkaren konponbidea. Hori da pausoa». Horretarako nahitaezkoa ikusten du «gatazka politikoaren inguruan afektatuta gauden eragile politiko guztiak gure ekarpena egitea. Horretarako ezinbestekoa da, alde aurretik, arazo politiko bat konpondu beharra dugula onartzea».

Rafa Diez. «Beste bi inflexio-punturen beharra» ikusten du: «Alde batetik, alderdien mahaia osatu eta bideratzea. Negoziazioa bideratu eta akordioa lortzea. Bestalde, Espainiako Gobernuak eta ETAK hitz



Ezker-eskuin: Rafa Diez, Lorea Agirre eta Joseba Egibar, atzo, Alkizan. I. GARCIA

egitea beste esparruan». Bi mahai horiek garatu behar direla dio: «Ez dago aitzakirik bi horiek martxan jartzeko».

BAKOITZAREN ALDERDI ETA SINDIKATUAREN EGINBEHARRAK

Joseba Egibar. «Bake eszenategi bat ziurtatzeaz aparte, benetan gatazka politikoari irteera eman behar diogu. Gure ustez, arazo politikoari irteera bat eman behar baldin bazaio, ezinbestekoa da Euskal Herria subjektu politiko bezala aitortzea, Herria delako eta Herri izatea nahi duelako, nazio izateaz aparte». «Herri baldin bagara, erabakitze eskubidea dugula garbi gelditu behar luke. Bi zutabe horietan oinarritutako ekarpena da geurea. Aldi berean, erabakitze-gaitasun horretatik abiatuta, behar

berrezkoa da eskubidearen ariketa eta proposamena ituntzea».

Rafa Diez. Ezker abertzalearen eta LAB sindikatuaren eginbeharrak galdetzean, sindikatuen arloan Diezek garrantzitsua ikusten du «sindikatu guztiak ekarpena egitea. Printzipio demokratiko batzuk ezarri behar dira eta horiek langileriari plazaratu behar dizkiogu». «Aukera historiko hau aprobetxatu egin behar da», dio Diezek, eta akordioaren osagaiak zehaztu: «Euskal Herria subjektu politikoa dela aitortzea eta herriak erabakitzen duena errespetatzea».

BESTEARI ESKATU BEHARREKOA

Joseba Egibar. «Ezker abertzaleak, behintzat iraganetik hona, gatazkaren arazoa eta

berorren konponketaren beharri eustea mantendu izan du. Borroka armatuaren amaiera ikusten ari bagara eta, benetan, behin betiko demokratikoa izan daiteken eszenategi berri bat eraiki behar badugu, nik uste dut hori izan daitekeela ezker abertzaleak ere ekarpen gisa egin beharko lukeena».

Rafa Diez. Diezek Lizarra-Garaziko akordioa ekartzen du gogora: «Ordungo leloa, *Euskal Herriak dauka hitza eta erabakia*, aurrera eramatea». Bestalde, «Katalunian hartutako bidearen tentazioan ez erortzea», gaineratzen du LABeko idazkari nagusiak.

IREKI BERRI DEN PROZESUAREN TRABAK

Joseba Egibar. Egibarrentzat «dudarik gabe, borondate falta» da prozesuak izan dezake-

en trazarik handiena. «Honekin ez dut esan nahi jendea borondaterik gabe dabilenik, baina denborak erakutsiko du zein dabilen benetan arazoari irtenbide bat eman nahian eta zein ez». Horren aurrean, egiteko bat zehazten du: «Lehenbaiten, presarik gabe baina ahalik eta lasterren, arazo politikoari irteera eman beharko dion mahaiaren edo foroaren edo tresnaren nolabaiteko abiapuntua jarri behar da».

Rafa Diez. «Espainiako eta Frantziako estatuak» jarri ditzaizkete, haren ustez, oztopoak prozesuan: «Ez dute ezer oparitu. Euskal Herriaren etorkizuna desitxuratzen saiatuko dira». Gizarteari argi egoteko eskatzen dio: «Euskal Herria subjektu bezala defendatu behar dugu, gure eskubide demokratikoak defendatu, presio soziala erabiliz».

HERRITARREN BETEBEHARRA

Joseba Egibar. Egibarrek garbi ikusten du «zerbaitek indartu eta sendotu badezake prozesua herria bera» dela «eta, herriaren barruan, herritarrek». Herritarrek mantendu beharreko jarrera (garbia eta sendoa izan beharko luke, prozesu honek herri partaidetzarik gabe ez duelako aurrera egingo). «Prozesu honek amaierarik eduki behar badu, herri kontsultarekin izan beharko du, eta herri kontsultara benetako heldutasunarekin iristeko, herritarren parte-hartzea lehenengo unetik izatea behar-beharrezkoa da», gaineratzen du. **Rafa Diez.** Herritarrek «apirilak 1eko masa ekitaldi horretako giroa landu eta zabaldu behar dute», eta «aktiboki funtzionaltzera» deitzen ditu LABeko idazkari nagusiak. Sindikalista abertzaleak herritarrek «bakea lortzeko bermerik handiena» direla dio.



**TOLOSAKO INMAKULADA
IKASTETXEA**

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Erizaintzaren Laguntza.
- Farmazia.

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Diagnosi Irudiak.
- Osasun Dokumentazioa.
- Gizarte Integrazioa.

AURREMATRIKULA: MAIATZA

Kondeko Aldapa, 5-B 20400 TOLOSA
Tel.: 943-673629 www.inmakuladatolosa.com

ZIZURKIL ▶ MAIATZA SALTSAN



Mundu guztiko jokoekin jolasean

I. Garcia ▶ Mundua Jolasean izeneko jolasgunean izan ziren atzo Zizurkilgo 100 haur inguru Atxulondo kultur etxean. Bost kontinenteetako jokoekin aritu ziren jolasean kulturartekotasuna landuz. Maiatza Saltsan-en baitan ere, gaur kontzertu berezia izango da Kultur Etxean bertan. Iker Goenaga herritarrek *Amorrua* izeneko bere azken diskoaren aurkezpena egingo du, 22:30ean.

ALEGIA ▶ GIZARTEA



Donostiako auzitegian Atanes auziari lotutako epaiketan egindako deklarazio batean. JUAN CARLOS RUIZ / A. PRES

Bi urteko kartzela zigorra Atanes hil zuen ertzainari

«Zuhurtzigabekeria larriagatik egindako hilketa» leporatu diote; lau urteko lan gaitasungabetzea ere ezarri dio epaiak

NEREA URBIZU

Gipuzkoako auzitegiak bi urteko kartzela zigorra ezarri dio Alegian Jose Atanes hil zuen R.B.D. ertzainari. 2003ko abenduan N-1 errepidean, Alegian, Jose Atanes beasaindarra hil zuen ertzainak. «Zuhurtzigabekeria larriagatik egindako hilketa» leporatu zioten ertzainari. Epaiaeren arabera, bi urteko kartzela zigorra ezarri dioten ertzainak «ahaztu egin zituen halako egoera batean eska dakizkiokeen oinarriko segurtasun neurriak, eta urratu egin zituen bere lanbidearen berezko arauak».

Urraketa esaten denean, armaren erabilera desgogokiari egiten diote erreferentzia; izan ere, «segurtasun indarretako

kideek armaren erabilera egokia egin behar dute, baina ertzain honek betebeharrak horren urraketa larria egin zuen».

Ertzainak ETaren atentatua gertatzen ari zela uste zuela esan zuen, baina sententziaren arabera, R.B.D.k uste bazuen «arrisku handiko» egoera batean zegoela, horrek egoeraren «egiaztatze zorrotza» egitera behartzen zuen. Sententziaren esanetan, baina, ertzainak «ez zuen egin» egiaztatze zorrotz hori, ez baitzuen laguntzarik eskatu.

Tribunalak ertzainari 2 urteko kartzela zigorra eta 4 urteko lan gaitasungabetzea egotzi dizkio, eta armak ere 4 urtez ezin izango ditu erabili. Atanesen neska-lagunari 120.000 euro eman beharko dizkio,

15.000 euro guraso bakoitzari eta 6.000 euro hilketa gertatu zenean han zegoen anaiari.

Ezbeharraren eguna

2003ko abenduaren 19an Jose Atanes eta bere neska-laguna kotxe batean zihoazten. Aurreko autoan hildakoaren anaia zihoan, beste lankide batzuekin. Alegia parean dagoen N-1 errepideko tramo batean gertatu egin ziren, kontrako norabidera gidatzen ari zen kamioi batekin ertzainak zeudela eta.

Atanes autotik atera zen eta ertzaina harengana hurbildu eta hartu egin zuen, ertzainaren kotxea aldera eramanez. Zeraman armatik tiro bat atera zen. Tiroak Atanesi buruan eman zion, eta ezbeharrean hil zen.

BIDEGOIAN ▶ HEZKUNTZA

Euskara bultzatzeko VI. Topaketa eskolan

Ostegunean, beste hiru eskolarekin bilduz, ikasleek prestatutako lanak eskaini zituzten



Ikuskizunak jakinmina sortu zuen ikusleengan. HITZA

N. URBIZU

Bidegoiango, Errezilgo, Aizarnako eta Albizturko eskolakoak bildu ziren ostegunean Bidegoiango eskolan, haien lanak guztiei erakusteko asmoz.

Topaketa hau duela 6 urte antolatzen dute. Bidegoiango Txinkorta ikastetxean festa ederra antolatu zuten. «Oso ondo joan zuen», antolatzaileen hitzetan.

«Euskara hizkuntza normalizatu eta ohiko hizkuntza izan dadin, Hezkuntzak, NOLEGA (Normalizazio Legearen Garapena) atala dauka. Honen bitartez, proiektu desberdinak bultzatzeko diru laguntzak ematen ditu». Horrexegatik, besteen artean, antzerkia, bertsoa, olerkia eta abestiak landu egiten dituzte beti.

«Aurreko kursoetako esperientziak oso baikor baloratu izan ditugu, eta hurrengo urtean ere jarraitzeko asmoa daukagu», Bidegoiango arduradunaren esanetan.

Aurtengo ikasturtean Bide-

goiaren elkartu badira ere, Errezilgo, Albizturko eta Aizarnako eskolakoekin batera ospatzen dute festa hau, duela jadanik sei urte.

Gaurko eskolako festa

Bestalde, eskolako festa egingo dute gaur, baina Bidegoiango ikasle, guraso eta irakasleek soilik. Kasu honetan, ordea, aurreko ikasle ohiak ere gonbidatu egin dituzte. Jende asko biltzea espero dute, hortaz.

Egitaraua hauxe izango da: 15:30ean hasiko da ekitaldia, orduan, ikasleen emanaldia izango delarik. Haiek prestatutakoak egingo dituzte, gustu handiz. 17:00etan bertaratu diren guztien laguntza beharko dute; izan ere, jolas saioari emango diote hasiera, eta ikasle, irakasle eta gurasoek ere parte hartu beharko dute. Amaitzeko, eskolako guraso eta irakasleek antolatu duten festa honetan merienda egingo dute, 18:00etatik aurrera.

ARAMBURU
Alokatzeko, Pisuak, Tolosa, Ibarra, Anoeta, Alegia, Amezketeta eta Lasarten.
Salgai (Tolosa), Pisu Belate kalean, 75 m2.
Salgai (Tolosa), Pisu San Frantzisko, 17, 140 m2, Garajea aukeran.
Salgai (Tolosa),
Pisu Larramendi kalean, 112 m2.
Salgai (Berrobi),
Pisu, baratza eta txabola, 168.000 €,
Salgai (Tolosa), Garajeak Plaza Zaharrean, Pedro de Tolosa eta Leidorren.
Alokatzeko (Anoeta), Pisu guztiz prestatua,
Alokatzeko (Ibarra), Garajeak Plaza Zaharrean, Pedro de Tolosa eta Leidorren.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

“Anoetako Baserriak”
liburuaren aurkezpena

Maiatzaren 15ean,
19:30ean, Anoetako San Joan Parrokian.

Oharra:
Aurkezpen ekitaldian txartel honekin liburu bat lortzeko aukera izango duzu





IBARRA ▶

Denboraldiko azken partida jokatu du gaur Ibarrak

EHU taldearen aurkako derbia izango du Donostian, 18:30etik aurrera

ERREDAKZIOA

Ibarra areto futbol taldeak gaur jokatu du denboraldiko azken partida. Donostian izango da, 18:30ean, Gasca kiroldegian, eta EHU-ren aurka egingo du, gipuzkoarren arteko derbia, beraz. Cesar Roca entrenatzailearen mutilek partida zaila izango dute, arerio gogorra baita EHU, baina jokoan ezer ez dagoenez, gaurko partida festa bat izatea espero dute.

Ibarra ustez, denboraldi honetan Belabietatik igaro den talde onenetarikoa da Donostiakoa. Kalitatezko jokalariek dituela erakutsi du, eta talde bezala, maila onekoa eta esasuntsua dela. Ibartarrak, bestalde, mailarik onenean daudela esan behar da, eta gaurkoa irabazteko gogor borrokatuko dute bigarren postua baitute jokoan. Izan ere, Gazte Berriak taldearen aurka galdu ondoren, Logroño errioxarrak daude orain postu horretan. Taldeak ibartarrei deialdi berezia egin die azken partidaren honetan jokalariek animatzeraz joan daitezten.

Bestalde, aurten estreina-koz, denboraldia amaitu ostean, Euskal Kopa egingo dute, eta Ibarra areto futbol taldeak ere parte hartuko du.

Zizurkilgo
Plaza Etxeberri
jaketxean

kamarera behar dugu

616 647 869

BERROBI ▶ KULTURA

Ekitaldi ugari, Kultur Astea amaitzeko

Mus txapelketak, Eriz magoaren ikuskizunak, txakoli dastaketak eta Toka Txapelketak osatuko dute gaurkoa

IÑIGO TERRADILLOS

Gaur emango diote amaiera Berrobiko XVI. Kultur Asteari, ekitaldi ugari osaturiko egitarauarekin: mus txapelketa, Eriz magoaren ikuskizuna, Toka Txapelketa eta txakoli dastaketa.

Atzo arratsaldean, gaztekoak izan ziren protagonistak; izan ere, eskolako ikasleek emanaldiak, batetik, eta Literatur Lehiaketako sari banaketak, bestetik, izan ziren Etxolan. Aurtengo lehiaketan 22 lan aurkeztu dituzte, eta epaimahaiak azpimarratu duenez, «mailak gora egin du, eta gai aldetik oso aberatsak izan dira lanak». Hauek izan dira irabazleak: LHko 1., 2. eta 3. mailan, *Ostruka anaiak* lanarekin, Imanol Arratibel; LHko 4., 5. eta 6. mailan, Tere Arratibelen *Denatetik ikasi nahi zuen mutikoa*, eta aipamena *Ea zer gertatzen den amonaren atsekabearekin* lanarekin, Arantzazu Rodas; DBHko 1. eta 2. mailan *Marmota eta laguna* lanarekin Itziar Artola; DBH 3tik aurrerako mailan, *Dena dutenen amorrua* lanarekin, Eztizen Agirresarobe.

Iker Galarza eta Joseba Usabagiaren *Errelebo*a antzezlanarekin amaitu zuten atzoko eguna.

EGITARAUA ▶

GAUR

11:00. Mus Txapelketa Begi Gorri Gaztexean.

11:30. Gaztekoentzako emanaldia Eriz magoarekin.

17:00. Toka Txapelketa.

19:15. Txakoli dastaketa udalbearen aurrean.



Ezkerrean, herenegun Idoia Sanchezek eskainitako saioaren une bat; eskubian, Ainhoa Arregi Peruri buruzko hitzaldia ematen. HITZA



Atzoko gaztekoen emanaldiko une bat. I. TERRADILLOS



Musika, antzerkia, umorea... denetarik izan zen. I. TERRADILLOS

BERASTEGI ▶

XIV. Ibilaldi Neurtua egingo dute bihar

Basurde elkarteak antolatuta, 30 kilometroko luzera izango duen XIV. Ibilaldi Neurtua izango da bihar. Izen-ematea 943 68 35 35 telefono zenbakian edo 06:00etatik aurrera Berastegiko plazan egin ahal izango da. Bestalde, Guraso elkarteak antolatuta, bihar 3 bat orduko gaztekoentzako ibilaldia egingo dute; izen-ematea igandean bertan, 09:00etan, Berastegiko plazan.

IBARRA ▶

Jaietako danborradari buruz bilera gaur

San Bartolome jaietako danborradaren inguruan hitz egingo bilerak egingo dute gaur Sendi Ekintzan (San Bartolome plaza), 16.30ean. Bileran danborradarekin aurrera jarraitu ala ez, ideia berriak aurkeztu eta lanerako behar diren boluntarioen eta laguntzaileen inguruan hitz egingo dute. Ekimen honen aurrera egin dezan, parte-hartzea eta laguntza ezinbestekoa dela adierazi du danborradaren antolatzaile arduratzen den taldeak.

BERROBI ▶

Bordelera irteera egingo dute hilaren 20an

Kultur batzordeak hilaren 20an Bordelera, Nazioarteko Azokara, irteera antolatu du. 07:30ean aterako dira udal-txe aurretik, eta 11:00etan iritsiko dira azokara. 18:00etan abiatuko dira Berrobi aldera tartean afaltzeko geldituz. Izen-ematea udal-txean egin beharko da, hilaren 17a baino lehen.

Astizko kobak S.M. enpresak, Mendukiloko leze turistikoan lan egiteko lan poltsa osatu eta udarako (ekaina-uztaila-abuztua) langile bat kontratatzeko deialdia luzatzen du.

Egitekoak: kobako bisita gidatuak, tiket salmenta eta taberna hartatzea.

Eskeintza: trebakuntza eta 3 hilabeterako jornada osoko kontratua. Jarraitzeko aukera.

Balaratuko da: euskalduna, zonaldekoa, antzerako lanetan eskarmentua eta ingurumen heziketaren ezagutza.

Ezinbestekoa: B1 gida baimena eta autoa (kobara bertaratzeko)

Epea: C.V.-ak maiatzak 22 (astelehena) arte jasoko dira.

Nora bidali: Plazaolako Partzuergo Turistikoko egoitzan (Turismo bulegoan).

Plazaola 21, 31870 Lekunberri
mendukilo@mendukilo.com

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

urteurrena ▶

Esteban Berazadi Garate

I. URTEURRENA

2005eko maiatzaren 14an hil zen.
-Golan bego-



Bere seme-alabak: Jon, Itziar, Eli, Agustín, Arantza eta Begoña.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzetea BIHAR, IGANDEA, eguerdiko 12:30ean, Zumaiko Aita Frantziskotarren elizan egingo den urteurren mezara. Aldez aurretik, mila esker.

ZUMAIA, 2006ko maiatzaren 13a

ARESO ▶ EUSKAL HERRIKO SOKATIRA TXAPELKETA

Gaur ekinen dio Aresok sokako lanari

Indarberrituta, 560 eta 600 kilotan «talde lehiakorra» izatea espero dute

JAIONE ASTIBIA

Gaur du aurreneko jardunaldia Euskal Herriko Sokatira Txapelketak, Berriatuan, 17:00etan hasita. 680 kiloko pisuarekin ekinen diote, 6 talde lehiatuko direlarik, Areso tartean dela. Gainerakoak, Mutriku, Nuarbe, Goiherri eta Gaztediko bi talde izanen dira.

Txapelketa lau pisutan jokatuko dute: 680, 640, 600 eta 560 kilotan, ohikoa den gisan. Baina berrikuntzak ere badakarzki. Alde batetik, parte hartuko duten talde kopuruak hala aginduta, osotara 7 talde ariko dira lehian (Getxok ez omen du taldea osatzerik izan, jende faltagatik, federazioetik baieztatu dutenez), pisu bakoitzean hiru jardunaldi eginen dituzte; hirurak puntuagarriak eta hain zuzen ere, azken saio horretan, puntuen baturak egin eta sailkapeneko burua izanen da txapelidun. Ez da kanporaketarik izanen.

Txapelketa jokatzeke eran ere egokitzapenak egin dituzte: saioak pisu handitik tikira jokatuko dituzte, oro har.

Handitik tikira

«Tiralariak txapelketa pisu gehiagorekin hasten dute normalean, eta gero jardunaldiak pasa ahala, pisua galduz joaten dira. Bada, erritmo horretara egokitu da txapelketa; lehenengo alditan bezala nahasian eginda pisuan sartzeko lana ere izaten baitzuten. Horrela erraztasun gehixeago izanen dute kirolariek», azaldu diote



Etkezarreta, entrenatzaile. J. A.

HITZARI federaziotik. Bestalde, zentzu horretan, orohar, aste-buru bakoitzeko pisu bakarreko saioa egitea ere erabaki dute.

Gauzak horrela, aresoarrek gaur dute lehen saioa. Esan behar da eta nabarmentzekoa ere bada, taldea indarberrituta agertuko dela zelaira. Izan ere, iaz taldea gutxieneko kideekin osatuta ibili ondoren, ahaleginaren ahaleginaz, lau lagun berri sartu direla Aresoko sokan: Patxi Sagastibelza leitzarra, sokatiran orain hasitakoa; Iantzi lesakarra, hango taldean aritutakoa; Igotz, Getxoko sokakoa; eta Lander ibartarra, Igeldon aritua. Bada beste aldatzariek ere, ordea, taldean. Aurrerantzean, Etkezarreta, entrenatzaile lanetan soilik arituko baita. «Sokan faltako da, baina prestakuntzan alde nabariturako dugu», adierazi dute aresoarrek.

Horrela, bada, «pisu handitan parte-hartzera goaz eta jende berriari aukera ematera» zioten, «560-600 kilotan talde lehiakorra izan gaitzeko», baieztatuz batera.

LEITZA ▶

Aurrerak borrokatu beharreko partidua

Bihar San Inazioarekin jokatuko du; igoereligaxkan egon nahi duen taldea da hori

J. ASTIBIA

Aurtengo denboraldian, Ligako azken-aurreko partidua jokatuko du Aurrerak: bihar goizean, 11:30ean, San Inazioaren aurka; «zuzeneko arerioa» taldekoen hitzetan.

Iruinarrak, beti ere laugarren doazela kontuan hartuz, leku horretan mantendu nahi badute (igoera faserako gutxienez horri eutsi beharko liokete), irabazi beharrean daude, atezoka duten Irunberriekin duen tarte ere 2 puntukoa baita.

Bitartean, talde leitzarrak igoerako ligaxkarako lekua ziurtatuta du. 52 punturen jabe, Gazte Berriak liderrarengandik puntu bakarrera dago. Irabazteko aukerak badituen arren, etxekoek bigarren leku hori ziurtatu nahi dute behintzat, ligaxkan azken partidua etxean jokatu ahal izateko. Noski, horretarako beste 3 puntu gehitza ikaragarri ona lukete, bide batez jarraian duten Baztanengandik aldeniduz.

Asko dago jokoan. Beraz, borroka ere halakoa itxaro daiteke.

Eskolako futbola

Bestalde, Eskolako Futbol Txapelketak 2. jardunaldia izanen du gaur-biharretan. Gaur 14:00etan hasi eta ordutik ordura 5 partiduko jokatuko dituzte; bihar 12:00etan, bakarra.

URREZKO AIZKOLARIA ▶

Arrospidek 1:19ko aldea, Urrezkoan sailkatzeko

Rekondok Atutxa II. arekin jokatuko du; herri kirol jaialdia Zeanurin dute bihar bertan

ERREDAKZIOA

Bihar hautsi-urratuko buruzburukoa du jokoan Urrezko Aizkolaria Txapelketan Anjel Arrospide leaburuarrak: Donato Larretxea izanen du aurrez aurre; hura ere Urrezko mailan dagokion taldean, sailkapenaren bila joaki.

Zeanurin jokatuko dute norgehiagoka, 18:00etan. Dagoeneko Mindegia sailkatuta dago hiru hauek eraturako taldean. Orain, beste sailkatua zein izanen den jakitea falta da, talde bakoitzetik bi igaroko baitira finalerdietara (bestean Olasagasti, Nazabal eta Txapartegi ari dira lehian): biek hala biek Mindegiaarekin elkartzeko txartela dute jokoan, hots txapelketan aurrera jarraitzeko aukera.

Hala, leaburuarra abantaila-oxoarekin doa. Irabaziz gero,

noski, aurrera eginen du; baina galduta ere aukerak baditu: 53 segundo baino gutxiagoko aldearekin, sailkatu ez ezik, taldeko lehen izanen litzatekeela eta 01:19 bitartekoarekin, bigarren. Beraz, borroka ziurtatuta dago.

23 urtez behekoan Rekondo

Jaialdi berean, eta 23 urtez behekoen mailan, Jon Rekondok ere badu eginbeharra bihar: leitzarrak Atutxa II.a izanen du arierio biharkoan, sari-keta honetan bertan gaztetxo-en mailako txapeliduna izan dena bera. Ikusmin handia sortu du zaletuen artean norgehiagoka honek ere, azken denboretan sortu den aizkolariaz gaztearen, Rekondoren eta gaztetxo-en mailako txapelidunaren artekoa izaki.

LEITZA ▶ URREZKO HARRI-JASOTZAILA

Urrutiak estreinako saioa du, Agirre lagun duela

Azkenik, bihar, Zeanurin eginen du agerpena

ERREDAKZIOA

Bihar eginen du lehenbiziko saioa Urrezko Harri-jasotzaile Txapelketako Berria mailan Josetxo Urrutia leitzarrak: Zeanurin, 18:00etan hasita egitekoa den herri kirol jaialdiaren baitan.

Urrutiak, azkenik, Agirre bizkaitarra du lan-bikote. Hasieran, leitzarra hilaren aurrenekoan ekitekoa zen Mintxeta lagun

zuela, baina, hark ezin zuelarik atzeratu egin zen; bestalde, Agirreraren bikotea, Urpe, bizkaitarra hura ere, min hartuta dagoela eta, bikotea osatuta dago jada.

Horrela, beraz, Eizmendi-Telleria II.a izanen dituzte arierio. 100na kiloko harri zilindrikoa, kubikoa eta borobila bizkarretatu beharko dituzte ahalik eta aldi gehienetan, 2na minutuko txandetan.

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik.

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

hilberria ▶



Iñaki Urteaga Gorrotxategi
(Olaberriko Udaleko zinegotzia)

Udaleko lankideari,
Olaberriko Talde Independentearen
izenean.

Ainhoa eta Joseba

oharra ▶ hileta elizkizuna gaur, larunbata,
18:00etan izango da Olaberriko elizan

OLABERRIA, 2006ko maiatzaren 13a

hilberria ▶



Digna Azkue Idiakez

—Goian bego—



Irribarre batekin joan zara
eta irribarre batekin utzi gaituzu.

Zure familia

GETARIAN, 2006ko maiatzaren 13an

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko maiatzaren 13a, larunbata ▶ IV. urtea

GAURKO
EGURALDIA



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak argitzeko, harpidetan egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Gerontologiko berriaren aldeko plataformak deitutako batzar irekia. 11:30ean, Gerontologikoan.

Tolosa. VI. Txirrita mendi ibilaldia antolatuta du Oargi mendi taldeak hilaren 21erako, igandea.

Amezketatik 06:00etan abiatu eta Aralarko 13 gailur igo behar dira. 45 kilometro dira guztira, Amezketan amaitu arte. Izen-ematea, 943 67 56 12 telefono zenbakian edo oargi@telefonica.net helbidean, 10 eurotan.

Tolosaldea. Zaldi ibilaldia. 08:00etan elkartzeko dira Bidaniako Rebiglas enpresaren aurrean, eta 09:00etan abiatuko dira Tolosa aldera, antzinako bideetatik. Santa Marinaran bukatu dute ibilaldia, bazkal orduan.

ERAKUSKETAK

Gatzelu. Edorta Muruaren antzinako euskal jantziei buruzko erakusketa. Hilaren bukaera arte, Ostatuan.

Tolosa. Iñaki Olazabalen eskulturak. Hilaren 27a arte, Aranburu Jauregian.

Tolosa. Mari Carmen Ortegaren pintura lanak, Lanbroa tabernan.

Tolosa. Jesus Lopez Zulueta koadroak. Hilaren amaiera arte, Saikin tabernan.

KULTUR ASTEAK

Alkiza. 09:30ean, mendi ibilaldia; 17:00etan, haur jolasak; 22:00etan, *Aupa Ebebeste!* filma, Kultur Etxean.

Berrobi. 11:00etan, Mus Txapelketa Begi Gorri



Pirineos Jazz Orkestraren saio didaktikoa

VILLABONA ▶ Ostegun arratsaldean haur asko bildu zen Gurea aretoa, egun jazz musika jorrazten dutenen artean onenatarikoak ikusteko eta entzuteko: Pirineos Jazz Orchestra. Itsuaren papeira egiten zuen aktoreak esaten zitueni musi-

ka gehitzen aritu ziren, eta jazz-etik sortutako estilo gehienak kronologikoki ezagutzera ematen zituzten. Jazz-aren historia entzuleek ikasi ahal izan zuten, musikariek kalitate ia ezin hobea erakutsiz. Helduek, behintzat, gozatu zuten. N. URBIZU

Gaztetxean; 11:30ean, Eriz magoa; 17:00etan, Toka Txapelketa.
Irura. 16:30ean, argazki lehiaketa eta ipuin edo idazlanen lehiaketa, Kulturunean; 18:00etan, Donapaleuko Musika Eskolako kideen bisita Loatzo musika eskolako kideei.

MUSIKA

Zizurkil. Iker Goenaga. 22:30ean, Atxulondo kultur etxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Azpiroz, M. L. Amaroz auzoa, 9. 943 67 51 18

IRRATIA

Txolarre irrati
(107.5, 101.2 FM)

10:30-13:00. *Hitza* hegazti magazina: kolaboratzaileak, Munduari leihoa, agenda...

Goiko irrati
(107.0 FM)

13:00. *Komerra* magazina. Posta elektronikoa: komerra@hotmail.com.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Haizea. Neska jatorra, Amezketara eta Azpeitiko familiarren partetik, urte askoan.



ZORIONAK

Iosune eta Ugaitez. Iosunek maiatzaren 11n 26 urte eta bere seme Ugaitez, gaur, lehenengo urtebetetzea. Zorionak bioi eta muxu handi bana familiako guztion partetik.



URTE ASKOAN

Xuban Munita Saralegi. Ostegunean 8 urte egin zituen. Zorionak eta muxu handi bat ebekoen partetik.



URTE ASKOAN

Leire. Mermelada eta guzi ospatu dezazun. Zorionak zure troparen partetik!!

Urtebetetzeak,
urrezko etzeiak,
ezkontzak,
jaiaberriak...

hitza
agurren
tarte



jantzi

hitza

ren

jertseak

HITZAren egoitzetan salgai